

## Albistegia



# AGURRA

Jose Maria Uzelai Ikastetxeko ikasleok hilabete honetan **HERRI BERRI** izena duen albistegia kaleratzen hasi gara.

Euskaraz egindakoa eta batz bestea lau orrialdekoa izango da.

Agerkari honetan eskola barruan lantzen duguna gizartean gertatzen denarekin lotzeaz gain, euskal hizkuntza, ingurune, plastika eta beste

zenbait arlo lantzea da gure helburua.

Horrela, jorratuko ditugun gaiak bai eskola zein herrikoak izango dira.

Albistegi hau esku-ragarri izango duzue honako web gune honetan:

[www.galeon.com/uzelai](http://www.galeon.com/uzelai)

**Espero dugu zuen gustukoa izatea!**

## Busturiako Altamira auzoan etxebizitzak egiten ari dira

### 5. MAILA

Altamira auzoan etxebizitzak egiten ari dira.

Orain dela bost hilabete eraikitzen hasi ziren.

Oraindik amaitzeko

asko geratzen da. Eraikinak lau pisukoak izango dira. Garajeak eukiko dituzte eta oso handiak izango dira. Adreilu, burdin eta zementuarekin egiten ari dira. Orain goiko pisua

egiten ari dira. Guz-tira hiru etxe egingo dituzte. Oso politikak geratuko dira hiru etxe horiek. Langileak egunero daude lanean asteburuetan izan ezik.

### Aurkibidea:

Albistegiaren aurkezpena	1
Etxebizitzak	1
Azoka	2
Antzinako jokuak	2
Landare arrotzak kentzen	3
PIN- Sukarrietako Obrak	3
Istripua- Albistegiaren izena-Haur Hezkuntza	4

## URTEBETETZEAK

*Hiruhilabete hauetan Busturiako eskolan ume hauen urtebetetzeak ospatu ditugu: Ainhoa Foruria, Jakinda Alberdi, Aslak Cabrero, Gorka Tellaetxe, Gudane Arrien, Ivan Martín, Xabier Pedraza, Markel Bilbao, Idoia Hormaetxea, Gotzon Tercero, Antton Zearreta, Ibai Gangoiti, Joseba Renteria, Ugaitz Zabala, Adriana Carmona, Mikel Retolaza, Eneko Bilbao, Malen Tercero, Eneko Mada-riaga, Janire Roel eta Ane Areizaga.*

# Antzinako jokuak

---

## 4. MAILA


---

Iaz Busturiako monografikoa egin genuen eta aurten osatzen jarraitzen dugu. Orain antzineko jokuei buruzko informazioa batu nahi dugu. Hau dela eta, gure aiton-amonak eskolara etorri dira guri gai hau azaltzera.

Guk galderak egin dizkiegu eta beraien erantzunak ondoko hauek izan dira:

“Ez genuen euki jolasik eskolan. Guk hauetara jolasten genuen: txopike, tabak, soka, mariaska, kanikak eta abar. Eskola eta gero etxera joaten ginen lan egitera. Ez ginen aspertzen. Neskak eta mutilak ez genuen jolasten batera. Euria egiten zuenean elizpean jolasten genuen. Jai egunetan mesatara eta errosariora joaten ginen. Gure eskola jatorra zen. Axpeko eskolan 4 urtekin hasten ginen eta

Altamiran 6 urtekin. Eskolako eskursioak egiten genituen Mendatara eta Artxandara. Ez genuen ordenagailurik ezta telebistarik ere ez. Eskolako liburuek urte baterako balio zuten. Ez genuen euki liburutegirik. Egunero 8:30etan sartzen ginen



eskolan eta 12:00etan irtetzen ginen. Larunbatetan eskola ekitzen genuen. 14 urtekin amaitzen genuen eskola. Txarto portatzen ginenean eskuan erreglarekin jo edo liburu asko

hartu eskuetan. Etxean esaten genuenean, merezi dugula esaten ziguten”. Galderak egin eta gero argazkiak atera genituen. Hurrengo egunean Egunkarian irten ginen haiekin.

# Urdaibaiko azoka ekologikoa

---

## 4. MAILA

---

Urriaren 7an goizeko 11etatik 16etara Busturiako Axpe auzoan azoka ekologikoa ospatu zen.

Antolatzaileak Busturiako Udala eta Lurreneko Nekazari Ekologikoen Elkarteak izan ziren.

Laguntzaileak Eusko Jaurlaritza eta bbk izan ziren.

Barazkiak, pikilo piperren das-tapena, ardoa, ogia, oilaskoa, gazta ezberdinak, fruta, kontzerbak (mermelada e.a.) eta arraultzak egon ziren.

Animatzeko bertzolariak eta trikitrilariak egon ziren.

Nahiz eta Gernikan animalia feria ospatu hemen jende asko egon zen.



# Urdaibaiko paduran hedatzen ari diren landare arrotzak kentzen

## 5. MAILA

Azaroak leian, ekologista talde bat eta gure eskolako batzuk bildu ginen, Busturiko San Kristobaleko tren geltokian, goizeko 10:00etan, Galtzagorriak taldearekin, Urdaibaiko paduran indar handiz hedatzen ari diren landare arrotzak kentzeko. Landare horiek lezkadia inbaditzen ari dira Lehenengo gure monitoreak eta argazkilaria ezagutu genituen: Koldo eta Xabier. Ondoren, zein landare eta nola kendu erakutsi zituzten.



Cortaderia selloana

Mutil bat furgonetarekin etorri zen. Handik motozerra, eskularruak, artasiak, palak, aitzurrak eta zerrak atera zituen.

Geroxeago erremintak hartu eta martxan hasi ginen. Nagusiak Plumeroak kendu zituzten motosierrarekin eta zati guztiak erre egin zituzten. Bitartean guk gazteok Boccharis halimifalia kentzen hasi ginen. Erabat dena kenduta zegoenean lan tresnak utzi eta han bukatu genuen gure kolaborazio lana.

# Gabonetako Haur Parkea

## 1. ETA 2. MAILA

Abenduaren 20an PINera joango gara autobusez.

Hemendik bederatzi terdietan irtengo gara eta Bilbora 10:15etan helduko gara.

Han bertan gabonetako kantak

abestuko ditugu eta gero jolastu eta barraketan ibiliko gara.

Eguerdian denok batera jango dugu ogitartekoa, fruta eta edaria. Behin jan eta gero Busturira itzuliko gara.

**Abenduaren  
20an PINera  
joango gara**

# Sukarrietan egiten ari diren obrak

## 6. MAILA

Eusko Trenak Sukarrietako udaletxearekin tratatu hau sinatu zuen: Toñako hondartzan trenbidea eusteko horma bat egingo zuela tren pisutsuak handik igarotzeko eta obra hori egiteko behar den materia-

la trenbidetik garraiatuko zutela, baina sinatutakoa ez dute errespetatu. Garraioa kamioez egiteaz gain, jende asko, batez ere umeak, bainatzen ziren leku batean orain haitz pila bat dago. Udaletxeak ez dio jaramoik egin eta dena dagoen moduan utziko dute. Dagoen

egoeran uzten badute eskarrak, almejak, karramarroak ... bizitzeko arazoak eukiko dituzte.



**JOSE MARIA UZELAI  
IKASTETXE PUBLIKOA**

Altamira 37  
48350 BUSTURIA

Telefonoak: 946250905-  
946251803  
Fax: 946250905

Email: uzelai@teleline.es  
014230aa@hezkuntza.net

IKUS EZAZU GURE WEB  
ORRIA



[www. Galeon.com/ uzelai](http://www.Galeon.com/uzelai)

## Kamioiaren istripua

---

### 6. MAILA

---

Irailan San kristobaleko gurutzean kamioi bat erre kara erori zen. Istripu horretan ez zen zauriturik egon. Kamioia erre kara erori zenean, zubi biko barandila apurtu zuen.

Ordu bat igaro ondoren ertzainak heldu ziren. Kamioia ateratzeko, grua bat ekarri zuten. Gutariko batzuk kamioia nola ateratzen zuten ikustera joan ginen. Kamioia ateratzeak bi ordu gutxi gorabehera iraun zuen.

Kamioia atera zutenean, errekan zulo handi bat geratu zen. Kamioiak aurrealdea berdez margotuta zeukan. Kamioia erori zen lekuan plastikozko baiak jarri zituzten.

## Albistegiaren izena

---

### 3. MAILA

---

Aurten gure eskolan aldizkari bat egin beharrean albistegi bat egitea erabaki dugu.

Hori dela eta, eskolako ume guztioei gure eritzia eskatu digute albistegi honi izena emateko. Hainbat izen aipatu ondoren Herri Berri aukeratu da, egokiena bezala. Gure gelako ikaskidea, Jorge, izan da izenaren asmatzailea.

## Olentzeroarekin gaude

---

### Haur Hezkuntza

---

ARUESUA KO UMEAK  
OLENTZERO GAUDE

(Haur Hezkuntzako umeak Olentzeroarekin gaude)

Urte

Berri

On!